



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILEKO LAN-ITUNEPEKO
LAN-TALDEA

COLECTIVO LABORAL DEL DEPAR-
TAMENTO DE EDUCACION, UNIVER-
SIDADES E INVESTIGACIÓN

Eskabideak aurkezteko epea /

Plazo de presentación de solicitudes:

2008ko irailetik aurrera egiteko
jubilazio partzialen eskaerak.

Solicitudes de jubilaciones parciales
a formalizar a partir de septiembre
2008.

2008eko apirilaren 23tik maiatzaren 23ra. /

Del 23 de abril al 23 de mayo.

Eskaerak eredu normalizatua erabiliz
egingo dira.

Las solicitudes se realizarán en
modelo normalizado

Aurkezte lekuak:

Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza

Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak

Lugares de presentación:

Dirección de Gestión de Personal

Delegaciones Territoriales de
Educación

**ERRETIRO PARTZIALA ETA TXANDAKAKO KONTRATUA ABIAN JARTZEKO OINARRIAK
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LAN-LEGEPEKO
SUKALDARITZA- ETA GARBIKETA-KOLEKTIBOAN.****1.- HELBURUA**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak txandakako kontratuak formalizatuko ditu Hezkuntza Saileko lan-legepeko pertsonalaren hitzarmen kolektiboa aplikatu ahal zaien eta erretiro partziala hartu duten lan-legepeko langileak ordezkatzeko.

2.- BALDINTZAK

Enpresa eta erretiro partziala hartzen duten langileak ados jarriko dira erretiro partziala eta txandakako kontratua gauzatzeko diren baldintzetan. Dena den, erretiro partziala eskatzen duen langileak txandakako kontratua erreleboko langileari eman aurretik uko egin ahal izango dio bere eskaerari.

Erretiro partziala hartzen duen langileak, gutxienez, jardunaldi osoko kontrato eduki eta 60 urte izan beharko ditu - edo 2008ko abuztuaren 31ra bitartean bete- eta kotizaziopeko pentsioa eragiteko eskatzen diren baldintza orokorrak bete beharko ditu.

Interesatuak arau erregulatzailerei eta lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandakoa, aurkeztu beharko du, erretiro partzialaren eskubidea duen zehazteko eta haren kotizaziopeko pentsioa kalkulatzeko. Erretiro-pentsioa Gizarte Segurantzako Erakunde kudeatzailearen aurrean eskatzearen ondorioetarako, Administrazioak txandakako kontratuaren kopia emango dio langileari.

3.- LANALDIAREN MURRIZKETA

Erretiro partziala hartzen duen langileak % 85eko lanaldiaren murrizketa bat eskatu ahal izango du. Errelebolariaren dedikazioa % 100ekoa izango da.

Hilabete/urtekoa da zerbitzuak emateko aplikatzen den irizpidea. Gauzak horrela, erretiratu partzialak lanaldi osoan eman beharko ditu zerbitzuak, urteko aldin batean. Ordezkatzen zaion langilearen zerbitzu-aldia egoera formalizatzen den unean zehaztuko da eta Batzorde Paritarioak urteroko jarraipena egingo du.

4.- IRAUPENA

Txandakako kontratuak erretiroa partzialak iraun bitartean iraungo du eta, betiere, iraungiko da erretiratu partzialak 65 urte betetzen dituen unean.

5.- IZANGAIK

Ordezkapenak egiteko kolektiboaren hitzarmen kolektiboan zehazten den araudiak zehaztuko du txandakako kontratua betetzeko sistema. Hala ere, txandakako kontratuak erabateko lehen tasuna izango du beste kontratu batzuen aurrean,- baita lanpostua betetzeko kontratuak ere,- eta beste kontratu horiei uko egin ahal izango zaie, txandakako bat hartzeko. Txandakako kontratua hasi baino gehienez 5 egun lehenago egin beharko zaio aurrekoari uko.



Izangai batek txandakako kontratu bat baldin badu eta lanpostu huts bat sortzen baldin bada, txandakako kontratua duen izangaiak lehentasuna izango du lanpostu huts hori aldi batez betetzeko, puntuazio gehiago duten beste izangai batzuk izan arren.

6.- ORDAINSARIAK

Lan egiten den kategoriarentzat hitzarmen kolektiboan aitortzen diren ordainsarien zati proportzionala izango dira Administrazioak erretiratu partzialari eta errelebolariari ordainduko dizkien ordainsariak, urte bakoitzean aplikatzen diren soldata-gehikuntzekin.

Urteko ordainsaria hamabi hilabetetan eta bi aparteko ordainketatan hainbanatuko da.

Erretiroaren saria ondoren esan bezala ordainduko zaio, dagokionari: portzentai bat erretiro partziala hartzen den unean eta gainontzekoa 65 urte betetzen direnean.

Vitoria Gasteiz, 2008ko apirilaren 23an



ERRETIRO PARTZIALA ESKAERA / SOLICITUD DE JUBILACION PARCIAL

Izena / Nombre	1. abizena / 1er. apellido	2. abizena / 2º apellido
Telefonoak/Telefonos	NAN / DNI	Helbidea / Dirección
Udalerrria eta PK / Municipio y CP	Ikastetxea / Centro	Jaiotze data / Fecha nacim.
Eskatzen du / Manifiesta :		
Indarrean den legediak ezarritako baldintzak betetzen dituela Langileen Estatuak eta araudiko gainerako xedapenek garatutakoak-12.6 artikuluan jasotzen duen erretiro partziala hartu ahal izateko.		Que cumple los requisitos establecidos por la legislación vigente para poder acogerse a la jubilación parcial prevista en el artículo 12.6 del Estatuto de los trabajadores y demás disposiciones reglamentarias
Interesatuaren borondatea dela dagokion lan zatia betetzea bi aldeek adosten dugun eran.		Que es voluntad del interesado/a cumplir la parte de trabajo que le corresponde de la forma que ambas partes acordemos.
Adierazten du / Solicita:		
Erretiro partziala onartua izan dakiola lege ezarritako baldintzetan 2008ko _____ aurrera, 65 urte bete arte.		Que a partir de _____ de 2008 se le permita formalizar la jubilación parcial hasta el cumplimiento de los 65 años.
Erantsitako dokumentazioa / Documentación que se adjunta		
<ul style="list-style-type: none"> ➤ NANaren fotocopia / Fococopia del DNI ➤ INSSen oinarri erregulatzaileren txostena / Informe de las bases reguladoras del TGSS. ➤ INSSek emandako Lan Bizitzaren txostena / Informe de Vida laboral emitido por el TGSS. ➤ Ikastetxean zerbitzuak betetzeko epealdia/ Período de prestación de servicios en el centro. ➤ Besteak / Otros: 		
Vitoria-Gasteiz, 2008ko.....ren.....k. Vitoria-Gasteiz, a dede 2008.		
Izpta. / Fdo.		

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA / DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION
LANGILIERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA / DIRECTORA DE GESTION DE PERSONAL